

# Semealabak

Getxoko Gurasoen Eskolako aldizkaria • Urtarrila 2009 • 21. ZK



## Egunerokoa

Gorroto handia sentitu nuen Alazneri bere urtebetetzean "wii" a oparitu ziotenean. Esan zuen berea zela eta ez zidala hura erabiltzen utziko. Horretarako arrazoia, nik berari nire eramangarriko Messenger-a ia inoiz erabiltzen ez utzi izana litzateke.

Hori dela-eta, joan den egunean nire ama besoetakoak eman zidan diruarekin, eta aitari eskatuko diodan pixka batekin, bihar, larunbata, wii bat erosiko dut niretzat. Badakit aitari, gure eztabaidarik ez entzuteagatik, ondo irudituko zaiola etxean bi erabilgarri izatea.

Duela hilabete, amonak esan zidan dena gairiditzen banuen, nahi nuena oparituko zidala. Horrela, larunbata aprobetxatuko dut warhammer-en "Ángeles oscuros" izendaturiko kutxa erosteko, eta Gorkari aurrea hartuko diot, hark beti iseka egiten baitit, puntu gutxi ditudala esanez.

Ama oso nekagarria dago aurten Olentzereoren gaiarekin. Denetik eskuragarri dugula esaten du, jokoak soberan ditugula, diru asko balio duena soilik nahi izaten dugula. Jadanik jakinarazi digu aurtengoa ezberdina izango dela. Gauza bakarra eskatu ahal izango dugula.

Berak esaten du gauzak Alaznekin partekatut behar ditudala. Baina nik, egia esan, ez dut ikusten berak bere autoa inorekin partekatzen duenik. Halaber esaten dit ez dela beharrezkoa denetik eskuragarri izatea, eta zerbait berria erosi aurretik, lehengoa erabili behar dela. Baina aita duela astebete joan zen bizikleta berria erostera, zeren zaharra, hilabete batzuek baino ez zituen, ez zitzaion oso eroso iruditzen. Duela hilabete batzuek halaber jadanik erabilgarri genuena baino handiagoa litzatekeen plasma erako telebista erosi zuten.

Ama jadanik horrela jarri izan da beste batzuetan, baina nire ustean, beti bezala, aitak konbentzitu du.





# Jokoak, jostailuak eta opariak

**F**amilia ugaritan errepikatu ohi den irudi batean ikus ahal da esaterako, neska bat, bere urtebetetze egunean, ireki gabeko opari mordo batekin. Familia eta lagunak inguruan, ekarri dioten oparia hark irekitzeko zain.

Une jakin batean, norbaitek bere oparia eman dio. Buztinarekin eta moldeekin eraturako animalien joko sinple bat. Uxue, pozik irribarreka, buztinaren paketea irekitzen hasi da esanez, "hauxe da nik nahi nuena". Ondoren bere gelara joan da jolastera. Aretoan ireki gabeko pakete ugari geratu dira, baita pazientzia gutxiko pertsona heldu batzuek ere.

Heldu batek deitu eta esan dio: "Itxaron, badituzu opari gehiago". Neska-ren erantzuna izan da: "Ez dut opari gehiagorik nahi, hauxe da nahi nuena".

Azkenean amore eman du eta gainerako opariak ireki ditu. Hori bai, begirada moldeetan eta buztinean ezarrita izanik. Oharkabea, jai-egun adierazgarri guztietan, esaterako urtebetetzea, Olentzero, Errege eguna, gauza material eta gutizia ugari jasotzea ohikoa izatea sustatzen ari gara.

### Eredu okerra

Bestalde, gizarte arau zentzugabea erakutsi diegu: oparitzea maitasunaren eta estimuaren frogaketa dela. Horrela, hazten direnean eredu berdina jarraituko dute eta konpromisozko opariak egingo dituzte.

Gure seme-alabentzako opariekin pentsatzeko unean, hainbat alderdi hartu

beharko dira kontuan.

- Ez dugu telebistako iragarkien eraginpean jokatu behar: Badira jokoak, jostailuak eta balizko opariak iragarkietan oso sarri azaltzen direnak, baina horrek ez du esan nahi horiek onenak izango direnik, ezta egokiak izango direnik ere.

### Opari didaktikoak

Badira beste asko, iragarkietan azaltzen ez direnak eta zure seme-alabarentzat opari onenean bihurtu ahal izango liratekeenak.

- Kontuan hartu beharko dituzu zure seme-alaben zaletasunak, baita haien gustukoak diren gauzak zeintzuk diren ere. Orokorrean interes oso ezberdinak izan ohi dituzte eta gurasoak gara haien berri gehien izaten dugunak.

Zure seme-alabak opari horrekin ikasi ahal duenaren inguruan pentsatzen ahalagindu zaitetz. Galdetu iezaiozu zure buruari, esaterako... Bere auto-estimua hobetzeko lagungarria izango al zaio?, Gaitasunen ala trebetasunen bat sustatuko al du?, Haren motrizitatea trebatuko al du?, Taldean ala bakarka jolasteko izango al da?

Ez dezazula ahaztu 'gutuziazko' jostailuak didaktikoagoak diren beste batzuekin konbinatzea. Ez du ezertarako balio izango joko 'didaktiko eta hezitzaile' pilo bat oparitzea, gero aspergarriak gertatzeagatik erabiliko ez badituzte.

Onena litzateke, neska-mutil guztiek, beraien artean eta gurasoekin jolasteko elkarreragilea litzatekeen jokoa erabilgarri

izatea (esaterako partxisa eta beste mahai-joko batzuek); irudimena lantzeko joko bat, eskuzko jarduera ahalbidetuko liokeena (eraikuntzak ala mekanoak); liburu ala ipuin egokiak, haurrak arreta handirik jartzen ez dizutela badirudi ere; gaitasunen garapenerako pintura ala marrazki sortaren bat (lapitzak eta akuarelak); baita bere gaitasunekin eta adinarekin egokitutako musika instrumenturen bat ere.

Jostailu bakoitzak ikaskuntza mota bat ekarriko badu ere, jostailu bera ez da haur guztientzat aldi berean egokia gertatuko.

### Opari egokia

Seme-alaben ezaugarri psikologikoein egokitutako oparia hautatu beharko da. Adibidez, lotsatiak direnentzat oso erabilgarriak gertatuko lirateke beste pertsona batzuekin parte hartzea animatuko dituzten jokoak. Aitzitik, haiek hiperaktiboak izaten direnean, gehiegizko energiak probetxuko moduan erabiltzeko egokiak izango direnak hautatuko dira, esaterako eraikuntzakoak edota musika gailu sinpleak.

Bere adierazpena lantzeko, mundua ezagutzeko eta bere irudimena sustatzeko egokiak diren jostailuak bilatu behar dituzu.

Jostailuak jolasteko, ondo pasatzeko eta bere irudimena trebatzeko erabilgarriak izan beharko dira, eta ez besterik gabe, pilak amaitzen diren bitartean haiek egin ahal dituzten 'trebetasunak' behatzen egoteko jostailuak.

Liburua, mundua ezagutzeko eta

irudimena trebatzeko opari bikaina izango da, eta horrez gainera gurasoekin batera partekatutako egunerokotasunean ezartzen bada, elkarreraginaren eta multimediararen arloan merkatuko jokorik aproposena litzateke.

Seme-alabek, bere lagunen, telebistaren eta jostailu katalogoen eraginez, zerranda luzeak egin ohi dituzte. Zoritxarrez, horietan gutxitan azaldu ohi dira liburuak.

### **Banatu jostailuak**

Oparien eta jostailuen erosketan banatu ezazu, eta Gabonetan egin ordez, urte osoan zehar erosi itzazu. Hasieran opari guztiekin oso gustura azaltzen dira, baina gero batekin ala birekin jolastu izan ohi dira. Jostailuen gehiegikeriak fantasiarekin amaituko du, baita gogaitasuna ekarri ere.

Gogoan izan Gabonetan soilik ez direla jolastuko, horrela, jolasa urte osoan zehar sustatu beharko dugu.

Egun horietan opari ugari jasotzea saihestu ezin baduzu, batzuek gorde itzazu eta urtean zehar aterako dituzu, hobeto aprobetxatuak izan daitezten.

- Zure aurrekontuaren eta sustatu nahiko dituzun balioen arabera hautatu itzazu.
- Jostailua, liburua ala jokoa bere adinerako egokia izatea zaindu ezazu: Seme-alaba batzuek bere adinerako

aurreratuagoak izaten dira eta zuen irizpidearen arabera izango da goragoko adinerako jostailuak hautatzea.

- Jokoak, bere erabilera, gomendatutako adina, arrisku maila edota beste edonolako informazio garrantzitsuren inguruan ekarriko duen etiketa zein informazioa ondo aztertu itzazu.
- Zoaz jostailu hezitzaileetan espezializatutako dendetara eta aholkua eskatu ezazu.
- Aurretiaz bere jakinaren gainean jartzea komeni da espero duten jostailua nolakoa izango den, frustrazioak eta desengainua saihestu ahal izateko.

### **Kopurua mugatu**

Egokiena gure seme-alabek opari kopuru mugatua jasotzea izango da. Baina, nola kontrolatu ahal izango dugu Gabonetan edota bere urtebetetzean familiako beste ahaide batzuen aldetik haiek jasoko duten guztia?

Hori izango da ohiko beste eragozpena: seme-alabek familiako ahaideen eta adiskideen aldetik nahi baino askoz opari gehiago jasotzea eta, batzuetan, jostailu desegoki batzuek jasotzea.

Kasu horretan, ondorengo urratsak kontuan hartuta jokatu ahal izango dugu:

1. Seme-alaben jostailuak kontrolatzeko nahia zuen konfiantzazko pertsonen

jakinaren gainean jartzea.

2. Zuen seme-alabaren onurarako izango den jostailu mota gomendatzea, aukera ezberdinen arabera.
3. Edozein kasutan, desegokiak diren jostailuak jasotzen baditu, horiek beste adin baterako gordetzea edo bestela besterik gabe baztertzeko gomendatuko da.

### **Dohakoa**

Ez ahaztu ez dela garrantzitsua oparia garestia izatea, are gehiago, hura doakoa izan liteke:

- Seme-alabekin, bere gustukoa litzatekeen ibilaldi batera ala beste nonbaitera joatea.
- Elkarrekin irakurtzea.
- Paseatzea.
- Beraiekin jolastea.

Halaber oparitu ahal izango dira, hasieratik, eguneroko bizitzarako beharrezko gauzak:

- Janzteko arropak
- Eskola-materiala

Laburbilduz, askotan, zure seme-alaba ez da behar duenaren jabe, baina zure laguntzarekin lortu ahal izango luke. Zure esku dago. Balioak irakatsi behar dizkiozu esaterako eskuzabaltasuna, zintzotasuna eta elkar ulertzea, estetika, materialismoa, sexismoa edota indarkeria. Hori bai opari ona!

## **Irakuriz ikastea ...**

Liburu honen izenburuak hitz gutxirekin deskribatu eta laburbilduko du jorratuko duen gaia: seme-alabak Padrongo piperrak bezalakoak dira, batzuek «minak» gertatzen dira eta beste batzuek ez. Eta hori ez da familiaren kultura ala ekonomia mailaren arabera izango, ezta ikastetxearen, neba-arreba kopuruaren, aitaren zein amaren agintaritzaren mailaren eta abarren arabera ere; nagusiki, horiek jasotzen duten heziketaren arabera izango da.

Emaizta bere osotasunean bermatu ahal ezin bada ere, ziur aski heziketa egokia jasotzen duen seme-alaba ez da gatazkatsua izango handitzen denean, edo behintzat ez nabarmenki. Garrantzitsuena, piperra mina denean, zapora hori baretuko duen zerbait eskuragarri izatea litzateke. Liburu honen helburua, seme-alabaren

bat mina gertatzen bada, eskuragarri egotea izango da. Guztiak ez dira minak eta, hala badira, ez dira era berean izango. Gainera, guztia gurasoek bere seme-alaben erreakzioen aurrean izango duten pazientziaren arabera izango da. Lagin modura botoia izango dugu; jarraian, autoreak seme-alaben heziketaren inguruan eginiko bi iruzkin:

*“Garbi izan beharra dago, seme-alaba hezteko, letra musika bezain garrantzitsua izango dela. Azalduko dut. Esaten duguna, gauzak esateko modua bezain garrantzitsua izango da. Ez da gauza bera izango esatea: “Ohea gaizki egin duzu, hobeto egin ahal duzu”, ala esatea “alferra zara eta ez duzu ezer ondo egiten”.*

*“Hezterakoan tribu osoa beharrezkoa gertatzen zaigu. Aitak, irakasleak, bizilagunak, autobus gidariak, egunkari saltzai-*

Pinto Rodríguez, Emilio «La educación de los hijos como los pimientos de Padrón». Gedisa editoriala. 2.007. 19 €



*leak...Guztiok hezten dugu, gertatzen dena da beldurra ematen digula besteek esan ahal digutenak. Eskolaren gabezia nagusia, bizitzan ikasten ditugun lehenengo gauzak jakin-minak bultzatuta egiten dugula eta neska-mutilek gaur egun teknologiaren arloarekiko jakin-min handiagoa azaltzen dutela kontuan ez hartzea izango da, horrela, hura gelara ekarri beharko litzateke ikasleriaren arreta lortzeko.”*





**Getxo**  
UDALA • AYUNTAMIENTO

Gizarte Zerbitzuak  
Servicios Sociales



# Getxoko Gurasoen Eskola

- Ikastaroen iraupena hiru, lau ala bost saiokoa izango da.
- Adierazitako data lehenengo saioari dagokio.
- Eguna eta ordutegia berdinak izango dira, ikastaroari dagozkion astetan zehar.
- Ez da beharrezkoa izango aurretiko izen-ematea gauzatzea. Nahikoa izango da adierazitako ikastetxera etortzea, lehenengo egunean.
- Edonolako arrazoi dela-eta lehenengo egunean etorri ezin izango bazinete, ondorengo saiotara etorri ahal izango zinatekete.
- Zure seme-alabak Ikastetxe horretakoak ez badira, eta hura ezagutzen ez baduzu, atezaindegira ala A.M.P.A.-ra joan ahal izango zara, saioak non ospatuko direnaren berri eman diezazuten.
- IES Aixerrota-rako eskainiko diren jarduerak, Andra Mari ikastetxeko Kultura-Aretoan gauzatuko dira.
- I.E.S. Fadura eta I.E.S. Julio C. Baroja ikastetxetarako batera eskainiko diren jarduerak, I.E.S. Fadura ikastetxean gauzatuko dira.
- Jarduerak doakoak izango dira.
- Lehenengo egunean gutxienez hamabi (12) pertsona etortzen ez badira, bigarren aukera bat bilatuko da, eta horren ondoren, partaideen gutxienerako kopurua lortzen ez bada, ikastaroa atzeratu egingo da. Gunearen barne dituzuen aukeren berri emango zaizue. Garrantzitsua izango da lehenengo egunean etortzea.
- Informazio gehiago eskuratzeko, 944660130 telefonora deitu.

## Ikastaroen Egutegia: Urtarrila-Maiatza 2009

	IKASTETXEA	GAIA	HASTEKO EGUNA	ORDUA
urtarrila	CP Geroa	Familiako gatazken ebazpena	urtarrillak <b>13</b> , asteartea	9:00
	Zubilletas	Autoestimua hobetuz	urtarrillak <b>13</b> , asteartea	14:30
	Trinitarias	Familiaren komunikaziorako gaitasunak	urtarrillak <b>13</b> , asteartea	19:00
	IES Julio Caro Baroja/ IES Fadura*	Nola bideratu estresa eta antsietatea	urtarrillak <b>14</b> , asteazkena	19:00
otsaila	Azkorri	Autoestimua hobetuz	otsailak <b>16</b> , astelehena	19:00
	Europa	Autoestimua hobetuz	otsailak <b>17</b> , asteartea	19:00
	Larrañazubi	Gurasoentzako psikologia	otsailak <b>19</b> , osteguna	9:00
martxo	IES Aixerrota**	Autoestimua hobetuz	martxoak <b>23</b> , astelehena	19:00
	IES Artaza	Eskolan arrakastaz aritzea	martxoak <b>24</b> , asteartea	19:00
maiatza	Divina Pastora	Familiaren komunikaziorako gaitasunak	maiatzak <b>11</b> , astelehena	9:00
	CP Romo	Nola bideratu estresa eta antsietatea	maiatzak <b>14</b> , osteguna	9:00

\* Ikastaro hau Fadura BHI-n gauzatuko da.

\*\* Ikastaro hau ANDRA MARI KULTURA-ARETOAN ospatuko da.

Informazio gehiago nahi baduzu, telefono zenbaki honetara dei dezakezu.

**94 466 01 30**